

LAMIEN AINTZIRA

Bermeo aldeko zaharrek ziotenez, bazen garai batean Matxitxakoko lurmuturraren ondoan *Utxin* izeneko aintzira lasaia, lamien bizileku zena. Eguzkia sartu ondoren inor ez omen zen ausartzen aintzirara hurbiltzen, bai baitzekiten hara joaten zenak nekepean eta oinazetan bizi beharra izango zuela betiko.

Beste ilunabar askotan bezala, Bakioko ehiztari gazte bat, oso mutil ederra, etxera bidean omen zihoan eguneroko lanaldi gogorra amaitu ondoren. Uda zuen izena mutil horrek. Artean ez zekien amodiozko pena eta nahigabeen berri, eta lasaitasuna eta zoriontasuna nabaritzen zitzaion aurpegian. Baina zoriontasun gozo horrek ez zion luzaroan iraungo.

Egun hartan, zorigaiztoko aintzira horren paretik igarotzean, halako giza irudi batzuk-edo ikusi zituen, hara eta hona mugitzen. Berandu samar zebilen eta oso nekaturik zegoen; bazekien, gainera, egitera zihoana arriskugarria zela benetan. Halere, ezin izan zion barrendik zetorkion ikusminari eutsi, eta bertara hurbildu zen, zeintzuek ote ziren jakitearren.

Huraxe ikuskizun zoragarria begien aurrean azaldu zitzaiona! Hamabi dontzeilatxo, zein baino zein ederragoak, jolasean zebiltzan biluzik aintzirako ur gardenetan.

Ehiztari gazteak esku-gainaz begiak igurtzi zituen behin eta berriro, ametsetan ari zelakoan. Hala ere, dontzeila eder haiek inora alde egiten ez zutelarik, egiaz gertatzen ari zitzaizola ohartu zen. Bat-batean, neskak haietako batek, haietan guztietan beharbada ederrena zenak, mutila zegoen aldera begiratu eta sekulako ikara hartu zuen, han ikusi zuenean. Bere lagunei zelatariaz ohartu ziren berehala, eta oso ikaraturik, aintzirako ur bareetan murgildu ziren izaki miresgarri haiek guztiak, lehoi basatiaren erasoak ustekabean harrapaturik ihesi doazen gazela gazteen antzera.

Atzera etxera abiatu zenerako ilun-ilun zegoen. Izan ere, halako izaki harrigarrien agerpenaz zeharo liluraturik, denbora luzean egon baitzen bertan neskak urpean ezkutatu ondoren, menderatu ezineko indar batek betiko han geldiarazi nahiko balu bezala. Itzulerako bidea ere besteetan baino luzeago eta nekezago egin zitzaion egun hartan. Izaki haiek burua guztiz nahasi baitzioten, ordu arte sekula ezagutu ez zuen eta bihotza taupada bizian jartzen zion zerbait sentiaraziz.

Bioletza, bere txikitako inudea, atean itxaroten zeukan. Kezkatan eta luzetsirik zegoen, mutila betiko garaian azaltzen ez zelako. Jai eta aste gutxira Uda umezurtz gelditu zen, eta emakume hark jaso eta hazi zuen, benetako semea balu bezalaxe; mutilak ere benetako amatzat hartu zuen beti.

- Zuri zerbait gertatu zaizu, alferrik ukatuko didazu! –esan zion inude zaharrak asaldaturik. Udaren begitarte ilun larrituari begira-begira-. Zer ikusi duzu bada?

- Ehiztariak, ordea, ez zion ezer erantzun, ezta beti bezala maitekiro agurtu ere. Kopetilun eta begirada larri, gogoia beste nonbait zuela, mahia ganean hustu zuen zakutoa. Bioltza segituan ohartu zen gertatutakoaz, eta intziraka esan zion:

-Badakit, bai, horiek ikusten izan zara, zure inude zaharraren esanari batere kasurik egin gabe! Zergatik joan zara *Utxinera* eguzkia sartu ondoren... Baina, honezkero ez du erremediorik, egin duzu eta kitto!

Ez batak ez bestek ez zuten gau onik igaro. Ezin izan baitzuten lorik egin; emakumea nahigabeturik zegoen Udak aurrerantzean izan behar zituen arazo latzak burutik kendu ezinik; mutila, berriz, suak harturik eta asaldaturik, gogoan josita gertatu zitzaizkion irudi haiek biziki aztoratzen zutelako.

Eguna argitu orduko, uda ohetik jaiki izen salto batean, hartu zituen eskopeta eta zakutoa, eta etxetik irteteko prestatu zen, goizero bezala. Baina, lehendabizi, inude irteteko prestatu zen, goizero bezala. Baina, lehendabizi, inude zaharrarengana joan zen agur esatera, betiko moduan. Emakumea une horretan zain zegoen, eta besotik goxo-goxo helduta esan zion:

- Badakit aintzirara joateko asmoa duzula, izaki horiek berriz ikustera. Baina, nahiko lan izango duzu, atzo bezala ustekabe harrapatzen ez badituzu behintzat. Horiek ikusteko duzun grina horrek lasaitasuna hondatu dizu eta patxada eta bizi-poza galaraziko dizu betiko. Tira, nire gogoz ez bada ere, lagunduko dizut egiteko horretan –eta urrezko orrazi distiratsu bat erakutsi zion-. Horako orrazi hau erabiliz nahi duzun guztia lortuko duzu haiengandik baina ongi aditu: ez dezazula ezergatik ere inoren eskuetan utzi, bestela galdua zara. Ongi aterako ahal zaizu zena!

Emakume zaharrak orrazia eman zion. Gero estu-estu besarkatu zuen, elkarrengandik betiko banandu behar balute bezala. Ehiztari gaztea saminez beterik ohartu zen, inudearengandik aldentzean. Bioltzak begiak malkoz bustirik zituela.

Arratsalde horretan, luzaz ibili zen *Utxin* inguruan, zer ikusiko. Eguzkia ispilu batean bezain garbi islatzen zen aintziraren ur gardenetan, batere-batere mugitu gabe. Bat-batean, eguzkia mendiez harantzago ezkutatzera zihoan une berean, ur-hotsa aditu zuen mutilak. Pilpiraka hasi zitzaion bihotza. Eta arnasa estutu zitzaion...

Bioltzak ez zion gezurrik esan. Zalantzarik gabe, eskuetan zeukan orrazi hark egin zuen miraria. Une horretan, urazpitik gora atereaz, izaki mirengarri haietako bat agertu zitzaion, biluzik, aurreko egunean bezain irribarretsu. Oraingoan, hala ere, ez zuen ihes egiteko itxurarik batere. Aldiz, adiskidetsu eta adeitsu agertu zitzaion.

- Tira, mutil, ekardazu orrazi hori, neurea da eta! -esan zion ezti-eztiki, eskua luzatuz.

Amaordearen hitzak gogoratu zitzaizkion orduan, eta neskatxa maitagarri hari entzungor eginez, golkoan gorde zuen orrazia. Gero, eskutik heldu zion neskatxari eta uretatik aterarazi zuen, eta modu onean baina zorrotz samar, honela mintzatu zitzaion.

– Orraziaren truke, neurea izan behar duzu!

Une horretan, ehiztariak estu besarkatu zuen neskatxaren gorputz bustia.

– Zeurea izango naiz, nahi duzun guztia egingo dizut, gogoak ematen dizun guzti-guztia bai, baina orrazia eman behar didazu! -esan zion pixka bat larriturik. Hartan, mutilaren aurpegia laztantzen hasi zen fereka goxoz. Eta mutila, pozaren pozez, dardaka jarri zen.

Horrela, bada, maitale apur bat baldarraren nahietara makurtu zen neskatxa, eta trebetasun handiz, inon diren plazer eta atsegin gozoenak sentiarazi zizkion. Gero, aintzira bazterreko belar gainean etzanda zeudela, neskatxa ederrak honela xuxurlatu zion Udari, losintxak eginez:

- Orain emango didazu, ezta?

Bere bizitzan aurreneko aldiz amodioa egin ondoren, ahuldurik eta neka-neka eginda zegoen gaztea; hala ere, urrezko orraziari gogor eutsi zion eta esan zion:

– Emango dizut, baina lehenik elkarrekin batu gaitezen, berriro, uretan orain!.

Utxingo uretan murgildu ziren eta besarkadarik gozoenean batu ziren berriro. Besarkada hori ez zen izan, noski, amodiozko gau ero hartan elkarri eman zioten azkena. Haien gorputzak behin eta berriz batu baitziren, oraintxe uretan, oraintxe belar gainean, harik eta maitale zoriontsua, oharkabea, lo bete-betea gelditu zen arte.

Bat-batean, deabruzko barre-argara ikaragarri batek esnarazi zuen gaztea. Garrasi egin zuen ikaraturik, barre-argara hura nork egin zuen ikustean; bere aurrean neskatxa eder hura zeukan berriro, berari maltzur-maltzur begira eta urrezko orraziaz ilea orrazten, esaten ziolarik:

- Ez zuen lotan geratu behar, mutil! Orraziaren jabe zinen bitartean, zeurea zen oso-osorik; baina atzera eskuratu dut orrazia eta aurrerantzean neurea izango zara, sekula betiko! –eta berriz ere barre-argara eginez, esan zuen-: Bioltzak ez zidan den-dena garbi esan; ez zidan esan bera ere lamia dela, gu bezalaxe; ez zidan esan derrigorrez zure amaorde izan eta kristau itxuran azaldu beharra zeukala, ni zeure jabe egin arte; oso maite ninduen, hala ere... Orain beranduegi da, zeure amaordea aintzirara itzuli da eta zuk nirekin etorri behar duzu

Bere burua estu eta larri ikusirik, Uda ziztu bizian jaiki eta lasterrari eman zion, halako egoera arriskutsutik nola edo hala ihesi egin nahian. Alferrik, ordea; une horretan itxura beldurgarrizko ipotx talde batek bidea itxi eta *Utxingo* ur goibeletara bultzatu baitzuten indarka. Lamiak, ilargiaren argitan zuri-zuri, joateko keinua egin zion besoekin. Aintziran, urperatu baino lehen, zorigaiztoko ehiztariak izu-ikaraz ikusi zituen bere inguruan beste lamia batzuk, geldi-geldirik, bere maitale ederraren antzera maltzurki begiratu eta barre egiten ziotela.

Handik egun batzuetara, Uda gaztea eta amaorde zaharra inon agertzen ez zirelako oso kezkatuak, Bakioko bizilagunak inguruko zoko-moko guztiak arakutzen hasi ziren, haien bila. Aurkitu zituzten noizbait mutilaren arropak lamien aintzirako bazterren batean utzita, baina haien jabearen arrastorik, inon ez. Halaxe, bada, elkarrekin bilera eginik, erabaki zuten haien bila jarraitzea arriskugarria ez ezik guztiz alferrikako ere bazela, eta beren etxeetara itzuli ziren.